



Azpeitiko Udala
Azpeitiko Udala

NAGORE ALKORTA ELORZA, Azpeitiko Udalaren alkate-udalburua (2022OROK1714).

Azpeitiko Udalbatzak **2022ko otsailaren 1ean** egindako bilkuran Azpeitiko Iraurgi ikastetxeari diru-laguntza zuzen bat onartzea erabaki zuen Jose Artetxe kalea, 4an dagoen eraikinaren mantenurako (Udalerriko ikastetxeetarako joaten diren ikasleen baldintzak babestea helburu izanik herriko ikastetxe bakoitzeko instalazio eta zerbitzuak berdindu nahi ditu).

Hitzarmen hori 2022ko martxoaren 8an sinatu zen, baina bere eragina 2022ko urtarrilaren 1ean hasi zen, eta lau urteko iraupena izango du.

Hitzarmen horren bidez Udalak hainbat konpromiso hartu zituen bere gain, eta horien artean daude argia, ura eta berogailuaren erregai gastuak, eta baita eraikina mantentzea eta eraikuntzaren garbiketa ordaintzea ere.

Laguntzaren ordainketa egiterako Azpeitiko Iraurgi ikastetxeak hiru hilabetez behin onuradun izaeraren datuak ez ezik egitasmoaren justifikazioa ere aurkeztu behar du.

Azpeitiko Iraurgi ikastetxeak 2022ko hirugarren hiru hilabetezko datuak aurkeztu zituen Udal honetan eta horiek ikuskatu ondoren, kontu-hartzaileak dagokion txostena egin du 19.881,49 €ko ordainketa egitea dagokiola adieraziz. Kopuru honekin Udalaren 2022. aurrekontuan ezarri den gehiegizko konsignazioa osatuko da.


Ezargarri den legedia: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorreko 19.3 artikulua eta Udalak 2021eko azaroaren 21ean onartutako diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzaileko 36) artikulua (GAO 2022/01/26) eta Udalaren eta Azpeitiko Iraurgi Ikastetxearen arteko 2022/03/08an sinatutako hitzarmeneko 7. atala.

Dagokigun diru-laguntza bat dator Udal honek diru-laguntzak emateko onartu duen Plan Estrategikoarekin, eta aurreikusita dago Udalaren 2022. urteko aurrekontuko exekuzio oinarrietan.

Eskumenari dagokionean, berriz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan dioena jarraituz, **ERABAKI DUT**:

Udalbatzak **2022ko otsailaren 1ean** egindako bilkuran Udalaren eta Iraurgi ikastetxearen arteko hitzarmenaren baitan Iraurgi Ikastetxeari 19.881,49 €ko ordainketa egitea. Kopuru hori 2022ko hirugarren hiruhilekoari dagokion hornidura, mantenu eta garbiketari dagokio. Kopuru honekin Udalaren 2022. ekitaldian ezarri den gehiegizko konsignazioa osatu da.

Azpeitia, 2022ko abenduaren 29a.



Nagore Elorza